



ARARTEKO ERAKUNDEAREN MEZULARITZA-ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Hona hemen kontratuaren xedea: Gasteizko egoitza nagusitik nahiz Ararteko erakundearen lurralde-ordezkaritzetatik datozen dokumentuak eta paketeak bidaltzeko mezularitza-zerbitzua ematea.

Ararteko erakundeak Gasteizen kokatutako egoitza nagusiaren eta Bilboko zein Donostiako lurralde-ordezkaritzen artean egin behar dituen barne-bidalketetan, gutun-azalak eta paketeak jasotzea, eramatea eta ematea hartuko du barne. Barne-posta esan ohi zaio zerbitzu horri.

Halaber, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan aurkeztutako kontsultei eta kexei lotutako ebazpenak jasotzea, eramatea eta ematea hartuko du barne zerbitzuak.

Arartekoak, unean-unean, estatu mailako bidalketak egin ahal izango ditu, bere jarduera egiten ari dela, bai eta beste autonomia-erkidego batzuetako defentsa-bulegoekiko nahiz Estatuko Herriaren Defendatzailerekin harremanetan ere.

Ingurumen-inpaktu ahalik eta txikiena sortzeko moduan emango dira kontratuaren xede diren zerbitzu horiek.

2. KONTRATUAN SARTZEN DIREN ZERBITZUAK.

Gure bulegoetako edozeinetatik askotariko hartzaileei bidali behar zaizkien gutun-azalak eta paketeak jasotzea, eramatea eta ematea hartuko du barne Ararteko erakundearen mezularitza-zerbitzuak.

Hona hemen enpresa esleipendunak eman behar izango dituen eta, beraz, kontratu honen xede diren zerbitzuak:

- a.- Hiri-zerbitzua
- b.- Euskal Autonomia Erkidegoko zubi-zerbitzua edo minus hamahiru zerbitzua
- c.- Estatuko zubi-zerbitzua edo minus hamar zerbitzua
- d.- Zerbitzu gehigarriak

3. ZERBITZUEN AZALPENA.

Enpresa esleipendunak bidalketa bakartzat hartu behar ditu zerbitzuaren xede diren helmuga bereko elementu guztiak. Hortaz, bidalketa bakarra balitz bezala fakturatuko da, baina fakturatu beharreko prezioa bidalketak duen pisu osoaren arabera izango da.



a. Hiri-zerbitzua

Zerbitzu honen helburua da produktuak egun berean jasotzea eta ematea, kasuan-kasuan dagokion lurralde historikoko hiriburu berean.

b.- Euskal Autonomia Erkidegoko zubi-zerbitzua edo minus hamahiru zerbitzua

Zerbitzu honen helburua da produktua jakinarazpena egin den egun berean jasotzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lekutara eramatea, hurrengo eguneko 13ak baino lehen.

Atal honen barruan sartzen da bulegoen arteko posta-zerbitzua. Zerbitzu horren helburua da Gasteizko egoitza nagusiaren eta Bilboko zein Donostiako lurralde-ordetzkaritzen artean bidali beharreko dokumentuak eta paketeak jasotzea eta ematea. Enpresaren erantzukizuna da produktuen trukea kontrolatzea, eta horiek zaintzea jasotzen direnetik hartzaileari eman arte.

Mota honetako zerbitzuak emateko, bi posta-ibilbide ezarriko dira Arartekoaren Gasteizko egoitzaren eta Bilboko nahiz Donostiako bulegoen artean. Ibilbide horiek astearte eta ostegunetan egingo dira (Gasteizko egoitza nagusitik Bilboko eta Donostiako lurralde-bulegoetara), eta, ondoren, itzulera egingo da. Bulegoen arteko trukea 2 edo 3 eguneko epean egingo da.

c.- Estatuko zubi-zerbitzua edo minus hamar zerbitzua

Zerbitzu honen helburua da produktua jakinarazpena egin den egun berean jasotzea eta estatuko edozein lekutara eramatea, hurrengo eguneko 10ak baino lehen.

d.- Zerbitzu gehigarriak

Berehalako banaketak (presakoak) eta zain egondako denboragatik aplikatutako tarifak.

Plegu hauetan berariaz jasota ez dauden zerbitzuak eman aurretik, aurrekontua egingo da.

4. KONTRATUAREN XEDEA BETETZEA

Enpresa esleipendunak egindako bidalketekin batera, entregatzeko albarana emango da. Datu hauek adieraziko dira agiri horretan: izena, IFZ eta data. Horren ondoren, zerbitzu-mota bakoitzari dagozkion bidalketen kopurua zehaztuko da gutxienez.

Gero, enpresa esleipendunak bidalketekin batera eramandako albaranak balidatu egingo dira, eta horien kopia emango zaio Arartekoari, egiaztagiri gisa, adostasuna adieraziz edo egin beharreko zuzenketen berri emanez.



Enpresa esleipendunak webgunea edo beste sistema informatizaturen bat eduki beharko du, bidalketen albaranak egiteko eta kontrolatzeko, eta erregistratutako bidalketen jarraipena egiteko eta haiek kontrolatzeko. Albaran-ereduetan, bidalketak kontrolatzeko eta fakturatzeko beharrezkoa den informazioa adierazi beharko da: bidalketa egin duen unitatea, bidalketa-mota, pisu-tarteak, modalitatea, helmugako arloak, zerbitzu gehigarriak eta abar.

Jasotzeko eta banatzeko ohiko ordutegia hauxe izango da: 8etatik 17:30etara, biak barne, astelehenetik ostegunera; ostiraletan eta udan, berriz, 8etatik 14etara.

5. KONTRATUA GAUZATZEAREN INGURUKO JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hilero, fakturatutako aldiarekin bat etorritz, enpresa esleipendunak bidalketen arlo hauei buruzko informazio zehatza eman beharko du, euskarri informatikoan: albaran-zenbakia, data, igorlea, zerbitzu-mota, hartzailea, kilo-kopurua, zerbitzuaren prezioa, kilometro-kopurua eta zerbitzu bakoitzari aplikatutako zerbitzu gehigarriak, halakorik ezarri bada.

Horrez gain, enpresa esleipendunak agiri bat igorriko du, hautemandako gorabeheren eta horien konponbidearen berri emanez. Nolanahi ere, gorabehera larrikeria gertatuz gero, jazotzen den unean bertan jakinaraziko da.

6. KONTRATUA GAUZATZEKO ESLEITUTAKO GIZA BALIABIDEAK

Enpresa esleipendunak behar adina pertsona bideratu beharko du, kontratutik eratorritako betebeharrak behar bezala betetzeko. Kontratuaren gauzatzeke esleitutako langileek enpresaren egituraren sartuta egon beharko dute, lan-harreman bidezko bitarteko propio gisa, edo, bestela, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (EEZP) erregistratutako EMLA (ekonomikoki mendekoa den langile autonomoa) gisako kontratuaren bitartez.

Zerbitzu hori erregularitasunez ematen duten langileen zerrenda aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak. Gainera, enpresa esleipendunak langile horiek ordeztuz gero, jakinarazi egin beharko du.

7. KONTRATUA GAUZATZEKO ESLEITUTAKO BALIABIDE MATERIALAK

Kontratuaren xede den zerbitzua emateko, enpresa esleipendunak behar adina ibilgailu duen flota eduki beharko du, baita mezularitza- eta garraio-lanak egiteko beharrezkoak diren tresnak ere.

Ibilgailu guzti-guztiak, baita beharrezkoak diren tresnak ere, enpresa esleipendunaren egituraren sartuta egongo dira, dela bitarteko propio gisa, dela kontratuaren gauzatzeari atxikita, garraiolari autonomoarekin EMLA (ekonomikoki



mendekoa den langile autonomoa) gisako kontratuak ezarriz, bere gain hartzen dituelarik baimenak, lizentziak, eta gainerako legezko betebeharrak, hala nola aseguruak eta azterketak —horiek indarrean eta eguneratuta egon beharko dute zerbitzua eman bitartean—.

8. KONTRATUA GAUZATZEKO INGURUMEN-BALDINTZAK. BILGARRIAK

Administrazioak berak paketatuko ditu bidali beharreko agiriak eta objektuak. Beraz, garraiatu beharreko materiala arriskuan egon ezean, mezularitza-enpresak hitzematzen du ez dituela berriz ere paketatuko, horrek helmugan hondakin gehiago sortzea baitakar.

9. NAHITAEZKO ASEGURUAK

Zerbitzuari atxikitako ibilgailu guztiek eduki beharko dute sinatuta, nahitaez, erantzukizun zibileko aseguruak, baita bidaiarientzako banakako istripu-aseguruak ere —modelo bakoitzean sartzen den bidaiari-kopuru osoa zein den, gutxienez horren parekoa izango da aseguruak duten eserleku-kopuruak—, ofizialki aitortutako aseguru-etxearekin sinatuta. Kontratua formalizatu aurretik eman beharko da sinatutako polizen kopia.

Enpresa esleipendunak garraiatutako salgaiek jasan ditzaketen kalteen erantzukizuna eta bermea hartuko du bere gain. Gainera, salgaiek ondasunei eta pertsoneri, zuzenean nahiz jardunean izandako zabarkeriaren ondorioz, eragin diezazkieketen kalteen erantzule izango da enpresa. Hori dela eta, enpresak aseguruak eduki beharko du, garraiatutako salgaien eta erantzukizun zibilaren gain, eta aseguruak, gutxienez, administrazio-klausula zehatzen pleguan adierazitako zenbatekoa estali beharko du.

Horrez gain, istripu- eta heriotza-poliza edukiko du kontratatuta eta indarrean, eta poliza horrek bertako langile guztiak estaliko ditu, indarrean dagoen eta aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoari jarraituz.



I. ERANSKINA

MEZULARITZA-GASTUAK

Urteko gastuen batezbestekoa (BEZa barne)	Urteko gehieneko aurrekontua (BEZa barne)
7.500 EURO	8.000 EURO

URTEKO BIDALKETA-KOPURU OSOAREN BALIOESPENA

Bidalketa-mota	Bidalketa-kopurua
Bilboko bulegoko barne-posta (Gasteiztik Bilbora edo Bilbotik Gasteizera egindako bidalketak)	192
Donostiako bulegoko barne-posta (Gasteiztik Donostiara edo Donostiatik Gasteizera egindako bidalketak)	192
EAEko administrazio publikoetara egindako bidalketak	120
Gasteizen egindako hiri-bidalketak	120
Estatu mailako bidalketak	10



II. ERASKINA

ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Mezularitza-zerbitzua

ESKAINNTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUATZEKO MODUKO BESTE IRIZPIDE BATZUK (GEHIENEZ ERE 40 PUNTU)

Eskaintza baloratzeko orduan, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

ZERBITZU-MOTA	HAZTAPENA	GEHIENKO KARGUA (BEZIK
a.- HIRI-ZERBITZUA (Gehienez ere 10 puntu, jarraian ageri den moduan banatuta)		
Gehienez ere 10 kg	5 puntu	7,50 euro
Gehienez ere 5 kg (bizikletaz egindako banaketa-zerbitzua)	5 puntu	8 euro
b.- EAE-KO ZUBI-ZERBITZUA EDO MINUS HAMAHIRU ZERBITZUA. Bulegoen arteko posta-zerbitzua barne (Gehienez ere 15 puntu, jarraian ageri den moduan banatuta)		
Gehienez ere 10 kg	10 puntu	11 euro
Aparteko kg bakoitza (euro gehitutako kilo bakoitzeko)	5 puntu	0,65 euro kiloko
c.- ESTATUKO ZUBI-ZERBITZUA EDO MINUS HAMAR ZERBITZUA (Gehienez ere 5 puntu, jarraian ageri den moduan banatuta)		
Gehienez ere 10 kg	5 puntu	12 euro
d.- ZERBITZU GEHIGARRIAK (Gehienez ere 10 puntu, jarraian ageri den moduan banatuta)		
Berehalako kilometroa (€/km)	5 puntu	0,65 euro kilometroko
Autobideen tarifak (berehalako zerbitzuetarako soilik)	0 puntu	Autobidean indarrean dagoen zenbatekoa
Zain egondako denbora (minutuko)	5 puntu	0,64 euro minutuko

Formula: Puntuazioa = (Eskaintza merkeenaren zenbatekoa/eskaintza bakoitzaren
zenbatekoa) x Zerbitzuaren gehieneko puntuazioa



III. ERANSKINA

ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Mezularitza-zerbitzua

BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ EBALUATZEKO MODUKO IRIZPIDEAK (GEHIENEZ ERE 60 PUNTU)

- Baldintza teknikoen pleguko "hiri-zerbitzua" ematea –gehienez ere 5kg–, bizikleta bidezko mezularitzaren bitartez (GEHIENEZ ERE 20 PUNTU)

Baloratu egingo da Gasteizko hiri-zerbitzuetan (erakundearen egoitza horrek bakarrik ematen du zerbitzua) bizikleten erabilera eskainiko ote den mezularitza-zerbitzu horietarako, ingurumen-erloto kontzientziazioa handitze aldera. Hala bada, argi eta hitz gutxitan adierazi zein den zerbitzu horiei dagozkien gehieneko bolumena eta pisua, tokiak eta abar.

Zehaztu zer bizi-mezulari atxikiko zaizkien mota horretako zerbitzuari, eta zein izango den jardueraren norainokoa Gasteizko hirian

	Vitoria-Gasteiz
Bizi-mezulariaren zk.:	

Eskaintzaren zati honetarako bizi-mezularitza enpresa baten zerbitzuak azpikontratatz gero, bi aldeek sinatutako lotura-konpromisoa aurkeztu beharko da. Enpresa nagusia esleipendun izendatzen baldin badute, konpromiso hori kontratu bihurtuko da, eta honako hauek aurkeztu beharko dira:



- Atxikitako ibilgailu hibridoak edo elektrikoak (GEHIENEZ ERE 20 PUNTU)

Ibilgailu propioen zerrenda (edo, bestela, titulartasun pertsonalekoak, baldin eta EMLA (ekonomikoki mendekoa den langile autonomoa) gisako kontratuaren bitartez atxiki badira)

MARKA	MODELOA	MATRIKULA	ERREGAIA	CO2(gr/km)	Estandarra (Euro)

(CO2aren eta EUROen gaineko datuak ibilgailuari buruzko informazio teknikoan aurkitu daitezke)

- Eko-gidatzearen inguruko prestakuntza duten langileak (GEHIENEZ ERE 20 PUNTU)

Esan mezularitza-kontratuari lotutako zer gidarik egin duten gidatze efizienteari buruzko ikastaroren bat aitortutako organo batean.